



UDA PROGRAMAZIOA  
VILLABONA 2021

## AURKIBIDEA ÍNDICE

<b>ekainak 19</b> / 19:00 / bertso saioa berezia <b>ORAINMENEAN</b> - Amasako eliza .....	5
<b>ekainak 20</b> / 19:00 / dantza + mediazio saioa <b>GenEroa</b> - Erreboteko plaza / Bear Zana frontoia .....	6
<b>ekainak 25</b> / 19:00 / kale antzerkia <b>FRONTONA</b> - Erreboteko plaza / Bear Zana frontoia .....	7
<b>ekainak 27</b> / 19:00 / dantza <b>HIRU HITZETAN</b> - Erreboteko plaza / Bear Zana frontoia .....	8
<b>uztailak 1</b> / 19:00 / musika <b>LOATZO SOKA TALDEA</b> - Onddo plaza / Gurea antzokia .....	9
<b>uztailak 2</b> / 19:00 / zinema kalean <b>ASTO ERREGEA</b> - Amalur plaza / Gurea zinema .....	10
<b>uztailak 4</b> / 19:00 / dantza <b>ERRIMAK BI OINETAN</b> - Erreboteko plaza / Bear Zana frontoia .....	11
<b>uztailak 8</b> / 19:00 / musika <b>ESNE BELTZA</b> - Erreboteko plaza / ikastola .....	12
<b>uztailak 9</b> / 19:00 / magia <b>HODEI MAGOA</b> - Amalur plaza / Gurea zinea .....	13
<b>uztailak 11</b> / 19:00 / dantza <b>GAZTE</b> - Erreboteko plaza / Olaederra kiroldegia .....	14
<b>uztailak 14</b> / 19:00 / musika <b>ANAKRUXA</b> - Onddo plaza / Gurea antzokia .....	15
<b>uztailak 15</b> / 19:00 / pailazoak <b>GARI, LONTXO ETA JOSELONTXO</b> - Amalur plaza / Gurea antzo .....	16
<b>uztailak 16</b> / 19:00 / musika <b>IDOIA</b> - Erreboteko plaza / Gurea antzokia .....	17
<b>uztailak 18</b> / 19:00 / kale antzerkia <b>KALE GORRIAN</b> - Erreboteko plaza .....	18
<b>uztailak 22</b> / 19:00 / antzerkia <b>DEGENÉRATE MUCHO</b> - Gurea antzokia .....	19
<b>uztailak 23</b> / 19:00 / musika <b>MAKULU KEN</b> - Erreboteko plaza / Gurea antzokia .....	20
<b>uztailak 24</b> / 22:00 / musika <b>KORRONTZI &amp; OINKARI</b> - Arroako plaza / Olaederra kiroldegia .....	21

KULTUR EKINTZAK

## AURKIBIDEA ÍNDICE

<b>uztailak 25</b> / 13:00 / musika <b>GORKA HERMOSA ETA GARIKOITZ MENDIZABAL</b> - Txistulari plaza / Gurea antzokia .....	22
<b>uztailak 25</b> / 19:00 / bertso saioa <b>BERTSOLARIAK</b> - Arroako plaza / Olaederra kiroldegia .....	23
<b>uztailak 26</b> / 19:00 / musika <b>THE NOWHERE PLAN</b> - Txistulari plaza / Gurea antzokia .....	24
<b>uztailak 29</b> / 19:00 / musika <b>DUPLA</b> - Erreboteko plaza / Gurea antzokia .....	25
<b>uztailak 30</b> / 19:00 / zinema kalean <b>ZIKOINAK</b> - Amalur plaza / Gurea zinea .....	26
<b>uztailak 31</b> / 13:00 / musika <b>ERESARGI TXIKI</b> - Gurea antzokia .....	27
<b>uztailak 12, 14, 19, 21, 26 eta 28</b> / 9:30 - 10:30 / kirola <b>MANTENTZE GIMNASIA</b> - ikastola .....	28
<b>uztailak 17</b> / 16:00 / kirola <b>ERLOJUPEKO TXIRRINDU PROBA, ERREPIDEAN</b> - Erreboteko plaza .....	28
<b>uztailak 28</b> / 18:00 / kirola <b>ESKUZ BINAKAKO FINALA</b> - Bear Zana frontoia .....	29
<b>uztailak 31</b> / 11:30 / kirola <b>ERREBOTE</b> - Erreboteko plaza .....	30
<b>uztailak 31</b> / 18:00 / kirola <b>PENTATLOIA</b> - Maiatzaren Lehena plaza .....	31
<b>uztailak 3 eta 10</b> / 9:00 - 13:00 / aisialdiko ekintzak <b>PUMP TRUCK</b> - Otsabi .....	32
<b>uztailak 7 eta 14</b> / 16:00 - 20:00 / aisialdiko ekintzak <b>LASER TAG</b> - Etxe Ondo .....	32
<b>uztailak 13 eta 20</b> / 16:00 / aisialdiko ekintzak <b>BINGOA HELDUENTZAT</b> - ikastola .....	33
<b>uztailak 17</b> / 10:30 - 13:30 / 16:30 - 19:30 / aisialdiko ekintzak <b>OSTOPO ZIRKUITOA</b> - Erreboteko plaza / ikastola .....	33
<b>uztailak 21</b> / 16:00 - 20:00 / aisialdiko ekintzak <b>BUBBLE BALLS</b> - Erreboteko plaza / ikastola .....	34
<b>uztailak 27</b> / 10:00 - 13:00 / aisialdiko ekintzak <b>MARRAZKI LEHIAKETA</b> - Berdura plaza .....	34
<b>uztailak 28</b> / 16:00 - 20:00 / aisialdiko ekintzak <b>UR PARKEA</b> - Arroa plaza eta Malkar plaza .....	35

KULTUR EKINTZAK

KIROL EKINTZAK

AISIALDIKO EKINTZAK



Jai Batzordeak aurten ere Santiago jairik ez izatea erabaki du; izan ere, pandemia egoera honetan oso zaila da pilaketek sortzen duten arriskua saihestea. Hala ere, herritarrek pandemian zehar erakutsi dute ez dituztela kultura, aisialdia eta kirola alde batera utzi nahi. Era berean, garrantzitsua iruditzen zaigu Amasa-Villabonari udako kalitatezko programazioa ematea, herritarrek, ahal den neurrian, herrian gera daitezen eta, aldi berean, merkataritzaren eta ostalaritzaren sektoreari laguntzea, une txarrean baitaude. Udako programazio duina eta askotarikoa prestatu dugula uste dugu, ia osorik kalean gartuko dena, gustu guztietarako proposamenekin. Espero dugu denok gozatzea eta guztiok egoerak eskatzen duen arduraz jokatzeko.

La Comisión de Fiestas ha decidido nuevamente que este año no haya fiestas de Santiago, ya que en esta situación de pandemia se hace muy difícil evitar el peligro que generan las aglomeraciones. Sin embargo, la ciudadanía ha demostrado durante todo este tiempo de pandemia que no quiere dejar de lado la cultura, ni el ocio ni el deporte. Asimismo, nos parece importante dotar a Amasa-Villabona de una programación estival de calidad, que ayude a que, en la medida de lo posible, la ciudadanía se quede en el pueblo y ayude a su vez al sector del comercio y de la hostelería, que están atravesando un mal momento. Creemos que hemos preparado una programación de verano digna y variada, que se desarrollará casi en su totalidad en la calle, con propuestas para todos los gustos. Esperamos que disfrutéis y que todos actuemos con la responsabilidad que requiere la situación.

**Ikuskizunak izango diren esparru guztiak hesituak izango dira, eta esparruaren barruan izango diren aukietan eserita bakarrik ikusi ahal izango dira.**

Todos los recintos donde tendrán lugar los espectáculos estarán vallados, y sólo se podrán ver sentados en las sillas colocadas dentro del recinto.



**Musukoa janzea nahitaezkoa izango da ekintza eta ikuskizun guztietan.** Será necesario el uso de la mascarilla en todas las actividades y espectáculos.



**Aulki-multzoak jarriko dira, elkarrekin bizi diren pertsonak, ahal dela, elkarrekin eseri ahal izateko.**

Se colocarán grupos de sillas para que las personas que conviven puedan sentarse juntas, en la medida de lo posible.



**Segurtasuna ezinbestekoa da. Jarraitu guri laguntzeko dauden langileen argibideak, eta arduratsua izan.**

Sigue las instrucciones del personal que estará para ayudarnos, y sé responsable.



**ekainak 19, larunbata / 19:00**



**bertso saioa berezia**



**Amasako eliza**

## ORAINMENEAN BERTSOLARITZAREN GENEALOGIA FEMINISTAK

**BERTSOLARIAK:** Oihana Iguaran, Oihana Arana eta Eli Pagola  
**GAI-JARTZAILEA:** Amaia Agirre.

Bertsolaritzan beti kontatu izan da gizonezko bertsolarien historia. Hala ere, iritsi zaizkigun izen handi horien atzean arakatzeko gero, hainbat eta hainbat plaza-andrearen arrastoak agertzen dira. Horregatik, Txakur Gorria Sormen Kolektiboak ahalegina egin du bertsolaritzaren hastapenetatik gaur arteko historia hori zailtzan jartzeko eta bertsolaritzaren genealogia feminista posible bat berridazteko, ikusezin izandakoak ikusaraziz. Emakumez osatutako bertso-saio honetan, bertsolariek genealogia horren parte diren datuak eta gertaerak izango dituzte kanturako abiapuntu. Gainera, berridatzitako historiaren mugarri ezberdinetan oinarritutako irudiak egongo dira erakusgai.



**ekainak 20, igandea / 19:00****dantza + mediazio saioa****Erreboteko plaza / Bear Zana frontoia**

## GenEroa

### KIMUA DANTZA KOLEKTIBOAK

#### AURRE-ESTREINALDIA

**EGILEAK:** Kimua DK**KOREOGRAFIA:** Kimua DK, Eneko Balerdi Eizmendi.

*GenEro* ikuspegiaren inguruko lanketa, originala bezain berritzailea den dantza ikuskizun eta mediazio parte-hartzaile bidez proposatzen du Kimua Dantza Kolektiboak. Biologia, genetika zein euskal hizkuntzari dagokionean, loturak, kateak... ote ditugun gal-detuko dugu genero ikuspegiari dagokionez, barrura begira.

Dantzaren bidez, gorputzaren mugimenduek gidatuta, hartzen ditugun rolak edo ezartzen dizkigutenak hautemateko parada izango dugu. Benetan askeak bagina, nola mugituko ginateke? Nola dantzatuko genuke? Eta zu, ausartuko zara lehen dantza pausua ematera? Loturak puskatzera? Benetan aske izatera?

**ekainak 25, ostirala / 19:00****kale antzerkia****Erreboteko plaza / Bear Zana frontoia**

## FRONTONA

### ARTEOLA TALDEA

**ZUZENDARITZA:** Iñaki Urruzola**AKTOREAK:** Janire San Sebastian, Anne Maiza, Unai Ormaetxea, Josu Artutxa eta Iñigo Otaegi.

Euskal kulturaren "erdigune izaera" aldarrikatu nahi da ikuskizunarekin. Balio pedagogiko handia du, antzerki-lanaren helburua baita Euskal Herriko kulturaren ezagutza sakontzea.

Antzezlana interaktiboa da. Ikusleak bi multzotan banatzen dira: gorriak eta urdinak. Kantxan pilotariak jokatu eta bakoitzean, harmailetako bi taldeei euskal kulturaren inguruko galdera bat egiten zaie. Hortaz, hogeita bi kintzera iristeko, alegia, kulturaren partida irabazteko, ezinbestekoa da herritarrek gutxienez kultur ezagutza erakustea.





ekainak 27, igandea / 19:00



dantza



Erreboteko plaza / 🌳 Bear Zana frontoia

## HIRU HITZETAN NODE KONPAINIA

>> 3 KONPAINIA ETA 3 DANTZA GARAIKIDE PIEZA, IKUSKIZUN  
BAT: HIRU HITZETAN.

> NEREA GURRUTXAGA & OIHANA VESGA: LEIHO ZIKIN, ZERU  
GARBI.

> AMAIA ELIZARAN & XABIER ZEBERIO: OUT.

> NODE: EMAKUMEAK.

«Hiru Hitzetan» Euskal Herriko hiru konpainiaren hiru piezaz osatuta dago, bakoitza 20 minutukoa, gutxi gorabehera. «Hiru hitzetan» hiru ahotsen eszenaratzea da. Erresilientziaren, ahalduntzearen eta askatasunaren artean bizi diren hiru emakume istorio elkartzen diren amankomuneko espazioa.



uztailak 1, osteguna / 19:00



musika



Onddo plaza / 🌳 Gurea antzokia

## SOKA TALDEA LOATZO MUSIKA ESKOLA

BIOLINA ETA AHOTSA: Eneko Iturbe

BIOLINA ETA AHOTSA: Maddi Iturbe

BIOLINA ETA AHOTSA: June Murua

TXELOA, GITARRA ETA AHOTSA: Jon Garmendia

GITARRA ELEKTRIKOA, ESPAINOLA, UKELELEA ETA AHOTSA:  
June Aranburu

10 hilabete daramatzate elkarrekin, eta hainbat talderen pop eta folk bertsio akustikoak egiten dituzte.



**uztailak 2**, ostirala / 19:00**zinema kalean****Amalur plaza / Gurea zinea**

## ASTO ERREGEA

**HAUR ZINEMA, EUSKARAZ****URTEA:** 2019 / **GENEROA:** Animazioa, komedia  
**IRAUPENA:** 1:25'

Lehoi Erregea, oihaneko burua, erretiroa hartzekotan da. Bere ondorengoak sinesgarritasuna irabaz dezan, Miss Fina aholkulariarekin batera hauteskundeak deitzea erabaki du. Mangu asto apala, zoriontsu da bere garbitzaile bizimoduarekin, baina ustekabeen herritarren hautagai bihurtuko da, eta Hantusteus, Lehoi Erregearen legezko oinordekoari, aurre egin beharko dio.

Manguk baina, ez daki bere hautagaitza Miss Finaren plan maltzuraren parte dela.

**uztailak 4**, igandea / 19:00**dantza****Erreboteko plaza / Bear Zana frontoia**

## ERRIMAK BI OINETAN

**HAATIK DANTZA KONPAINIA****ZUZENDARIAK:** Aiert Beobide Eta Unai Elizasu**KOREOGRAFIA:** Talde sorkuntza / **DANTZARIAK:** Aiert Beobide, Amaiur Luluaga, Anne Jauregi, Iñigo Etxeberria, Irati Sorondo, Jon Arsuaga, Nagore Zabala.

Errimak oinetan ikuskizunarekin bizitakoaren ondoren, formatu bera izango duen gai, bertso eta dantza berriez osatutako bigarren ikuskizun batekin gatz. Garai bateko eta gaurko bertso eta doinuez osatutako emanaldi entretenigarri eta dibertigarri bat.

Bertso ariketa eta jokoak dantzara eramatea da emanaldi honen berezitasuna edo ezberdintasuna. Eta bertso sorta zahar eta berriei mugimendua emanez, gaurkotasunari buruzko gogoetak plazaratzea.



**uztailak 8**, osteguna / 19:00**musika****Erreboteko plaza / 🌿 ikastola**

## ESNE BELTZA

**ESNE BELTZA + AMAK**

2021 urtean Esne Beltzak ikuskizun berria eskainiko du Amak laukotearen laguntzarekin. Haien abestiei beste kutsu bat eman eta Amak taldearen ahotsekin kolore berria emanda aurkeztuko zaizkigu aurten. Reggae estilora gerturatuta izango ditugu entzungai, moldaketa berrieekin baina betiko indarra eta mezua mantenduz.

**uztailak 9**, ostirala / 19:00**magia****Amalur plaza / 🌿 Gurea zinea**

## HARRITZEAREN ABILEZIA

**HODEI MAGOA**

**EKOIZPENA ETA BANAKETA:** MAGO HODEI MAGOA KONPAINIA  
**ZUZENDARIA:** ODEI DOMINGO ILUSIONISTA

Hodeiren lau azken ikuskizunetako ideia hoberenak zerbait paregabea lortzeko elkartzen dira, magoen dilemari buruz hitz egitera gonbidatuko gaituen ikuskizuna... ilusionatzen dute, engainatzen dute? Nork daki?

Inpaktu handiko ekoizpena, joku landu, ilusio handi eta ideia originalekin. Hodei magoaren ohiko umoreak eta bere laguntzailearen presentzia eszenikoak publikoa harrapatuko dute ordu bat baino gehiagoz, erritmo aldaketekin, sorpresekin eta publikoak antzokitik abesten ateratzea eragingo duen soinu bandaz beteriko proposamenarekin.





uztailak 11, igandea / 19:00



dantza



Erreboteko plaza /  Olaederra kiroldegia

## GAZTE

### OINKARI DANTZA TALDEA & HIKA TEATROA

**ZUZENDARITZA ETA DRAMATURGIA:** Agurtzane Intxaurreaga  
**KOREOGRAFIA:** Eneko Gil / **DANTZARIAK:** Lierni Kamio, Aiora Escudero, Sua Enparantza, Fermin Escudero, Gorka Duran, Amaia Aizpurua, Beñat Monfort, Maitane Irurzun, Izaskun Aizpurua, Aimar Garaia, Lide Bengoetxea, Gorka Granada / **MUSIKA:** Zigor Lampre (D.J Zigor)

Estetika eta lengoia propio baten bila jarraitzeko asmoak eraginda, ikuskizunak Euskal Dantza abiapuntu izanda, Dantza Garaikidea eta garaiko dantza modernoak eta gorputz mugimendua uztartuko ditu, ahotsari eta testuari ere tokia utzita.

Musika aldetik ere, berrikuntzari ateak irekiko dizkio. Euskal folkloreko doinuei muzinik egin gabe, zuzenean entzungo diren erritmoekin oinarri elektronikoa izango dute, Hip hop kulturaren kutsu handiarekin eta elektronikak sortzen dituen giroekin lagunduta.



uztailak 14, asteazkena / 19:00



musika



Onddo plaza /  Gurea antzokia

## ANAKRUXA

### LOATZO MUSIKA ESKOLA

**PIANOA:** Luisi Arregi / **BAXU ELEKTRIKOA ETA AHOTSA:** Nieves Sobrado / **ESKUSOINUA:** Kristina Ezkurdia / **ESKUSOINUA ETA AHOTSA:** Maialen Mugika / **SAXOFOI ALTUA:** Eugenio Batalla / **SAXOFOI SOPRANO:** Izadi Lasa / **TXISTUA:** Pili Goikoetxeandia / **BIOLINA:** Joxean Garrido / **GITARRA ELEKTRIKOA ETA AHOTSA:** Jon Arregi / **PERKUSIOA:** Carmen Chivite / **BATERIA:** Ixak Oiartzabal

Anakruxa taldea Loatzo Musika Eskolaren barruan 10 urte baino gehiago daraman proiektua da. Bertan musika zaletasunari erantzuna ematen dio garai eta jatorri desberdinetako kantuak lantzen eta beraiekin gozatuz. Gaur egun Anakruxa taldean Villabonako, Zizurkilgo, Irurako eta Ibarako musikariak daude.







uztailak 15, osteguna / 19:00



pailazoak



Amalur plaza / Gurea antzokia

## PETITXOU

GARI, MONTXO ETA JOSELONTXO

PAILAZOAK:

GARI: « clown »-a, pailazo edo clown jokoaren dinamizatzailea da.

MONTXO: "Augustoa" da eta taldean komedia irudikatzen duen pertsonaia.

JOSELONTXO: "Kontraugustoa" da.

Eszena, musika, magia eta barrez osaturiko istorio txiki eta dibertigarri desberdinez beteko da. Familia guztiak gozatu dezaken ikuskizun era bat dibertigarria, non haurrak benetako protagonistak izango diren.

Honela, "Petitxou" lehenengo momentutik, bai heldu eta bai haurren arreta lortzeko diseinatua dago, ikuskizun guztian zehar ikusleak gozatu, barre egin eta hunkitu dadin.



uztailak 16, ostirala / 19:00



musika



Erreboteko plaza / Gurea antzokia

## IDOIA

"ILUN ETA ABAR"

AHOTSA ETA GITARRA: Idoia Asurmendi

Aramaion jaioa, Idoia Asurmendiren kasua euskal eszenako deigarrienetako bat da. Ahoz aho eta kanturik argitaratu gabe, kontzertu deigarriak lotzea lortu zuen, eta *Sold Out* kartela jarri zuen Jazzaldia, Chillida Leku Museoa, Donostia Festibala eta Tabakalera Kultur Etxea bezalako espazio esanguratsuetan.

"Aulki jokoa" kantuarekin bere lehen diskoa iragarri zuen. Bere alderik sentikorrena erakusten digun abesti hunkigarria. Pop britainiarren intentsitatea jasotzen duen piano-doinua, Euskal Herriko udazkeneko folk airea gehitzen diona, arima uzkuertzen dizun absentzia eta familia-maitasunaren testu bat inguratzeko.

Orain, disko berria eskuan, Idoiak estreinaldi hunkigarri bat ixtea lortu duela ikus dezakegu.





uztailak 18, igandea / 19:00



kale antzerkia



Erreboteko plaza

## KALE GORRIAN BARSANTI TEATROA

**ZUZENDARITZA:** Pako Revueltas

**ANTZEZLEAK:** Juanjo Otero eta Aritz Rodriguez

Aitona-amona bikote bat etxe gabe geratzear dago. Berrogei urtez bizi izan dira etxe horretan, auzo horretan, eta, gaur, ezkondu ondoren erosi zuten pisua betirako uzteko unea iritsi da.

Polizia beren balkoiaren azpian dago, gunea inguratuta dute, eta epailearen agindua betetzeko prest daude. Auzokideak etxearen inguruan batu dira egoera horren lekuko izan eta beharbada, kexatzeko.

Marianok ez du etxetik joateko asmorik, amaierara arte gogor eutsi nahi du. Horretarako, hainbat estrategiaz baliatuko da. Begoñak, bestalde, nahiago du egoera horrekin lehenbaitlehen amaitu.



uztailak 22, osteguna / 19:00



antzerkia



Gurea antzokia

## DEGENÉRATE MUCHO LAS XL

**EN ESCENA:** MARTA SITJÀ Y NÍA CORTIJO

**IDEA ORIGINAL:** LAS XL

Las XL son Marta Sitjà y Nía Cortijo, vuelven ahora con *Degenérate Mucho*, un show teatral con tintes de musical y altas dosis de humor y crítica que pone de manifiesto las grandes desigualdades que provoca el binarismo de género. Las XL se suben al escenario a mostrar lo peor de los valores tradicionalmente asignados a las personas según su sexo. Los de ellos: la fuerza, el control, el poder, los privilegios; los de ellas: las emociones, la delicadeza, los cuidados. Siempre desde una perspectiva feminista y con el foco puesto en la comedia y la música en directo.

Esta es la historia de un fallo en el sistema.



**uztailak 23, ostirala / 19:00****musika****Erreboteko plaza / 🌿 Gurea antzokia**

## MAKULU KEN AFROBEAT

Taldeak euskaraz eginiko afrobeat estiloa lantzen du gehien bat, eta zuzenekoan 9 musikari aurkituko dituzu oholtza gainean:

**AHOTSA ETA XEKEREA:** Eider Ormazabal / **AHOTSA ETA KITARRA:** Xabier Herrera 'Xa2 makulu' / **TEKLAK:** Bea Hurtado / **KONGAK ETA DJENBEA:** Iñigo Suberbiola / **BAXUA:** Unai de Andres 'Patxus' / **BATERIA:** Nagore Etxabe / **SAXOFOI BARITONOA:** Pau Torres / **SAXOFOI TENORRA:** Ixak Oiartzabal / **TRONPETA:** Julen Rodriguez

Makulu ken AFROBEAT talde Gipuzkoarra da, 2008tik ehun kontzertu baino gehiago egin dituena.

Aurreneko diska 2012an aurkeztu zuen eta 2016an **"Kalékalé"** izeneko bigarren album bat, Durangoko azokan kritika onak jaso zituen.

**uztailak 24, larunbata / 22:00****musika****Arroako plaza / 🌿 Olaederra kirolegia**

## KORRONTZI & OINKARI "KOPLARIAK"

**PARTE HARTZAILEAK:** Korrontzi, Oinkari, Xabier Amuriza, X.B. Leturia, Kristina Aranzabe eta Leire Berasaluze

**"Kopla zaharrak"** eta Korrontziren doinu berriak bateratzen dituen ikuskizun paregabea. Produktu berria, originala eta ineditoa.

Ikuskizunaren muina euskarazko "Kopla zaharrak" izango da, gehienak Xabier Amurizarena, eta proiektu honetarako espresuki sortutako beste koplak, antzinako kopla zahar tradizioaren ikerketa lanean bildutakoak. Oholtzan, Amasa-Villabonako Oinkari Dantza Taldeko kideak izango dituzte bidelagun.




**uztailak 25, igandea / 13:00****musika****Txistulari plaza / ☁ Gurea antzokia****Kontzertua hasi aurretik Atari Bizi Lehiaketaren sari banaketa egingo da.****GORKA HERMOSA ETA GARIKOITZ MENDIZABAL**  
FOLKLORE FUSIONATUA**TXISTU:** Garikoitz Mendizabal / **AKORDEOIA:** Gorka Hermosa

Garikoitz Mendizabalek eta Gorka Hermosak proiektu berria dakarte: tradizioa eta modernitatea uztartzen dituen XXI. mendeko euskal kulturari begirada berria.

Folklorearen, jazzaren eta musika klasikoaren arteko distantziakidetasun zainduari eutsiz, euskal eta iberiar penintsulako erritmoak eta doinuak, jazzaren askatasuna eta musika klasikoaren konposizio-prozesuen konplexutasuna uztartzen dituzte. Horretarako, Gorka Hermosak konposatutako errepertorioa lantzen dute, 4 aldiz urteko konposiziorik onenaren saria azken 6 urteetan, akordeoilarien Munduko Konfederazioaren akordeoi Saria...

Errepertorio hau Berlingo Filarmonikoan, Washingtongo National Opera Kennedy Center-en eta beste toki ospetsu batzuetan interpretatu da, bai bakarlari ezagunek bai 3 kontinentetako 20 orkestrek.

**uztailak 25, igandea / 19:00****bertso saioa****Arroako plaza / ☁ Olaederra kiroldegia****BERTSOLARIAK****GAI-JARTZAILEA:** Amaia Agirre**BERTSOLARIAK:** Alaia Martin, Nerea Ibarzabal, Oihana Iguaran, Sustrai Colina, Unai Iturriaga eta Iker Zubeldia



**uztailak 26**, astelehena / 19:00



**musika**



**Txistulari plaza / Gurea antzokia**

## **THE NOWHERE PLAN** TRIBUTO THE BEATLES

**VOZ Y GUITARRA:** Conn Bux

**VOZ, GUITARRA Y TECLADO:** Isaac Miguel

The Nowhere Plan es un dúo acústico tributo a The Beatles. Un proyecto creado por los músicos Conn Bux e Isaac Miguel, y con el que pretenden disfrutar y hacer disfrutar a quien les quiera escuchar, revisando el magnífico repertorio de una de una de las bandas más queridas a nivel mundial.

Su reto ha sido reflejar lo mejor posible todos los ingredientes de las canciones de The Beatles con tan solo dos instrumentos y dos voces. Su soltura en el escenario y su energía consiguen que el público disfrute al máximo escuchando canciones que permanecen en el recuerdo de todo el mundo.



**uztailak 29**, osteguna / 19:00



**musika**



**Erreboteko plaza / Gurea antzokia**

## **DUPLA** "FOLKLORE"

Gari Uriarte eta Beñat Oribe

Aguraingo bi mutil dira. DUPLA nekazal ingurune baten musika urbanoa egiten duen taldea da. Hitz esplizituak erabilia, ikutu elektronikoa zein hip-hop-a nahasten dituen pop musika da beraien marka.

Durangoko Azokan bere lehenengo lan kontzeptuala aurkeztu zuten, *Folklore* izenpean.

Zuzenekoetan, ahotsa eta bateria elektronikaren indarrarekin nahasten dira eta antzerkiaren antzeko ikuskizun bisuala sortzen dute.



**uztailak 30, ostirala / 19:00****zinema kalean****Amalur plaza / Gurea zinea**

## ZIKOINAK

**HAUR ZINEMA, EUSKARAZ****URTEA:** 2016 / **GENEROA:** Animazioa  
**IRAUPENA:** 1:29'

Zikoinek haurrak ematen dituzte... edo eman ohi zituzten behintzat. Orain interneteko mundu mailako konpainia txikizkari baten paketeak ematen dituzte. Junior (Andy Samberg), konpainiako banatzailerik hoberena den zikoina, postuz igotzekotan da nahi gabe Umeak Egiteko Makina aktibatu eta baimendu gabeko ume zoragarri bat egiten duenean. Etsiak hartuta, bere nagusia konturatu baino lehen pakete arazotsua eman nahi du. Horretarako, Stork Mountaineko gizaki bakarra den Tulipen laguntza izango du.

**uztailak 31, larunbata / 13:00****musika****Gurea antzokia**

## ERESARGI TXIKI

**ABESBATZA**

Oraindik maskarekin, gelarekin eta gainerako protokoloekin bizi behar dugu egonaldi gogor honen ondoren, berriro bueltan gara! Pentsa dezakezuen ez da erraza izan ahotsak berriro prest jartzea, eta are gehiago kontuan hartuta kontzertu guztiak maskara jarrita egiten direla.

Baina merezi dugu bihotza alaitzea eta gure bizitzei berriro kolorea ematea, musikaz gozatzea eta baikortasunez betetzea... zuengatik eta zuentzat ...

Espero dugu gozatzea prestatu dugun programa askotari-koarekin.





**uztailak 12, 14, 19, 21, 26 eta 28**  
astelehena - asteazkena / 9:30-10:30




**kirola**



**ikastola**

## MANTENTZE GIMNASIA

Izenematerik gabe, herritar guztientzat irekia.



**uztailak 17, larunbata / 16:00**



**kirola**



**Erreboteko plaza**

## ERLOJUPEKO TXIRRINDU PROBA, ERREPIDEAN IRRINTZI ELKARTEAK ANTOLATUTA

Villabonako herrigunetik Sandra baserrira, 4 km-ko igoera.

ADINA: 16 urtetik gorakoentzat

Izenemateak alde zurretik, 615 711 056 deituz



**uztailak 28, asteazkena / 18:00**



**kirola**



**Bear Zana frontoia**

## ESKUZ BINAKAKO FINALA

### PILOTAKADEK BATZEN GAITUZTE I

Pilotak garrantzi handia izan du Villabonako historian. Errebotea da indartu nahi dugun pilota era nagusia, baina esku pilotak ere pisu handia du herrian.

Villabonako plazan zegoen eta eraitsi zen pilotalekuan entzun ziren Eskuz Binakako Santio txapelketetako lehen pilotakada hotsak. 1946an Behar Zana elkarte sortu eta herritar pilotazaleei testigua hartu eta gaur arte jarraitu da txapelketa hau antolatzen. 75 urte baina gehiago lehen pilotakada haietatik, bada zerbait. Amasako pilotalekuak ere bizi izan ditu txapelketa honen jokaldi ederrak eta 2009az geroztik Villabona herriko Bear Zana pilotaleku berrian gozatzen dugu esku pilota onenaz. Zenbat urte, zenbat partida eta zenbat bikote.

Zenbatu ezina. Guzti horri errespetua zor diogu. Uztailean zehar astearte eta ostegunero eta uztailak 28an errespetu hori itzultzeko aukera izango da, txalo zaparrada gisa.

**Oharra:** egun bizi dugun osasun egoera dela eta, pilotalekura sartzeko unean uneko legedia hartuko da kontutan.



**uztailak 31, larunbata / 11:30****kirola****Erreboteko plaza**

## 92. VILLABONA ETA HAZPARNE NAGUSI MAILAKO ERREBOTE PARTIDA

### PILOTAKADEK BATZEN GAITUZTE II

1881eko azaroaren 20an jokatu zen lehen errebote partida ofiziala Villabonako errebote plaza berrituan. 140 urte eta gero, errebotea bizirik dugu herrian.

Erreboteak izar handiak sortu ditu Villabonan. Ez da kasualitatea gerora ere pilotari ezagun handienak Villabonako plazan jokatu eta gero mundua ezagutu izana pilotari gisa. Errebotea da Villabonako erakusgai nagusia. Zaindu, mantendu eta indartu beharrekoa. Behar Zana elkarte horren alde lanean dihardu. Gure berezitasuna da eta berezia da ere Villabonako herriak eta Hazparnek 91 urtez jarraian errebote partida jokatu izana San Inazio egunean.

Aurten 92. urteurrena ospatuko da lehen lehia hartatik. Eta lehen partida haiek jokatu zituztenei, Villabonaren izena pilotari gisa munduan zabaldu zutenei, antolatzaile eta pilotazaleei errespetua zor diegu. Eta uztailearen 31ean errespetu hori itzultzeko aukera izango da 11:30ean Errebote plazan. Ikusle gisa eta berriro ere txalo zaparradak oparituz.

**uztailak 31, larunbata / 18:00****kirola****Maiatzaren Lehena plaza**

## PENTATLOIA

### KIROLARIAK:

#### GIZONEZKOAK:

Kepa Peñagarikano / Andoni Iruretagoiena "IZETA"

#### EMAKUMEAK:

Karmele Gisasola "ZELAI III" / Uxue Ansorregi / Lucia Orbe / Garazi Arruti

### LANA:


**HARRIA JASO:** 15 jasoaldi bolari

**GIZA PROBA:** 2 plaza

**AIZKORA:** 2 egur

**TXINGAK:** 4 plaza

**KORRIKA:** 15 buelta







**uztailak 3 eta 10**, larunbata / 09:00 - 13:00



**aisialdiko ekintzak**



**Otxabi**

## PUMP TRUCK

ADINA: **UZTAILAK 3an:** LH 3-4-5-6 mailakoentzat  
**UZTAILAK 10ean:** DBH 1-2-3-4 koentzat



**uztailak 7 eta 14**, asteazkena / 16:00 - 20:00



**aisialdiko ekintzak**



**etxe ondo / ikastola**

## LASER TAG

ADINA: 6 urtetik aurrera



**uztailak 13 eta 20**, asteartea / 16:00



**aisialdiko ekintzak**



**ikastola**

## BINGOA HELDUENTZAT SALBADORA ELKARTEAK ANTOLATUTA

SARIAK: Bonoak, herriko dendetan erosteko /



**uztailak 17**, larunbata / 10:30 - 13:30 / 16:30 - 19:30



**aisialdiko ekintzak**



**Erreboteko plaza / ikastola**

## OZTOPO ZIRKUITUA

ADINA: 8 urtetik aurrera





uztailak 21, asteazkena / 16:00 - 20:00



aisialdiko ekintzak



Erreboteko plaza /  ikastola

## BUBBLE BALLS

ADINA: 8 urtetik aurrera



uztailak 27, asteartea / 10:00 - 13:00



aisialdiko ekintzak



Berdura plaza

## MARRAZKI LEHIAKETA

ORIA MERKATARI ELKARTEAK ANTOLATUTA

HIRU ADIN TARTEETAN BANATZEN DITUGU: 3-5 urte / 6-8 urte / 9-11 urte

SARIAK: ADIN TARTE BAKOITZEKO 2 SARI  
Lehenengo saria 50 € / Bigarren saria 30 €



uztailak 28, asteazkena / 16:00 - 20:00



aisialdiko ekintzak



Arroako plaza eta Malkar plaza

## UR PARKEA

> ARROAN - **GAZTE GUNEA**: Slide eta Pailazo Txirrista.

> MALKAR PLAZAN - **HAURREN GUNEA**: Iristakorra, Piraten Txirrista, Txalupak eta Apar Festa.



